

Euskal administrazioen aurrekontu-saldoak %32,8 egin zuen hobera 2010ean, baina oraindik negatiboa da

BPGrekiko finantza-zorra 2009ko %7,2tik 2010eko %10,4ra hazi zen


Euskal Administrazioen (Eusko Jaurilaritza, foru aldundiak eta udal administrazioak, euren erakunde autonomoekin eta udalez gaindiko eta azpiko erakundeekin batera) diru-sarrerak %7,4 hazi ziren 2010ean 2009ren aldean eta gastuak %2,6 murriztu, Eustaten datuen arabera.

Diru-sarreretan, eragiketa korronteak %4,9 hazi ziren, kapital-eragiketak %0,5 eta finantza-eragiketak –gehien hazi zirenak- %25,1 2009ren aldean.

Gastuak oro har %2,6 murriztu ziren: eragiketa korronteetatikoak %0,1 jaitsi ziren, kapital-eragiketetatikoak %9,2 eta finantza-eragiketetatikoak %18,6.

Diru-sarreraren eta gastuen bilakaerak aurrekontu-saldoren hobekuntza ekarri zuen 2010ean. Eragiketa korronteen saldoa negatibotik positibora pasa zen, 433,2 milioira. Ez-finantzaketako saldoak, negatiboa izanik ere, hobera egin zuen, 2009ko -3.020,7 milioitik 2010eko -2.029,2ra, 2010eko BPGren %3,1.

1. grafikoa. Euskal administrazioen zerga sarreraren banaketa. 2010 urtea (%)



Iturria: EUSTAT. Sektoze publikoaren aurrekontuen estatistikak

Diru-sarrerak garrantziaren arabera azterturik, ikusten da BEZetiko eskubideak zerga-atal guztien %35,6 izan zirela; %9 hazi ziren 2009ren aldean. NUIZetiko diru-sarrerak %4,5 hazi eta guztirakoaren %35 izan ziren. Hirugarren, garrantziaren arabera, Zerga Bereziak: %2,2 hazi ziren. Aldakuntza negatiboak ondokoek izan zituzten: Sozietateen zerga (%-20,8); Beste zergak (Ondarea, Oinordetza eta Dohaintzak, Ondare transmisioa) %4,6 jaitsi ziren. Bi kategorია horiek – Sozietateak eta Beste Zergak- dira 2007tik zerga-sarreraren multzora ekarpena murriztuz dirauten bakarrak.

Gastuaren aldetik, ez-finantzetako atal guztiek aldakuntza-tasa negatiboak izan zituzten. Pertsonal-gastuak %0,3 murriztu ziren; Ondasun Korranteetako gastuak %0,5; Transferentzia Korranteak %0,8 eta Kapital-eragiketak –murrizketarik handiena- %9,2 2009ren aldean. Aldakuntza-tasa positiboak: Finantza-gastuak, 2009ko 87,3 milioitik 2010eko 141era; Finantza-pasiboak, 2009ko 241,1etik 2010eko 314,2ra.

Euskal Administrazioen likidazio finkatua. 2010-2009

mila euro	2.009	2.010	Δ%
SARRERAK GUZTIRA	16.026.623	17.219.198	7,4 %
Eragiketa Arruntak	13.360.037	14.020.472	4,9 %
-Zerga Sarrerak	11.713.357	12.015.888	2,6 %
PFEZ	4.028.560	4.207.908	4,5 %
Sozietate-zerga	1.246.904	987.314	-20,8 %
BEZ	3.922.028	4.276.594	9,0 %
Zerga Bereziak	1.414.394	1.445.072	2,2 %
Udal-zergak	652.036	670.094	2,8 %
Bestelako Zergak	449.435	428.906	-4,6 %
-Bestelako sarrera arruntak	1.646.680	2.004.584	21,7 %
Kapital-eragiketak	559.363	562.413	0,5 %
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	13.919.400	14.582.885	4,8 %
Finantza-eragiketak	2.107.223	2.636.313	25,1 %
GASTUAK GUZTIRA	17.635.817	17.178.072	-2,6 %
Eragiketa Arruntak	13.607.574	13.587.302	-0,1 %
Langileria Gastuak	3.464.284	3.455.355	-0,3 %
Transferentzia Arruntak	4.822.929	4.785.883	-0,8 %
Bestelako Gastu Arruntak	5.320.361	5.346.064	0,5 %
Inbertsioak eta Kapital-eragiketak	3.332.518	3.024.748	-9,2 %
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	16.940.092	16.612.050	-1,9 %
Finantza-eragiketak	695.726	566.022	-18,6 %
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	-247.537	433.170	275,0 %
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZARIOA	-3.020.691	-2.029.165	-32,8 %

Iturria: EUSTAT. Sektorre publikoaren aurrekontuen estatistikak

Euskal administrazioen zor bizia 6.801,3 milioi ziren 2010eko abenduaren 31n, 2009an baino %48 gehiago; izan ere administrazio guztiek (Eusko Jaurlaritza, Foru-aldundiak, udal administrazioak) mailegu berriak eskatu zituzten.

BPGrekiko zorra 2009ko %7,2tik 2010eko %10,4ra joan zen.

Euskal Administrazioen datu finkatuak. 2010. urtea

mila euro

	GUZTIZKO BATERATUA	EUSKO JAURL.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	14.020.472	8.382.558	2.190.217	7.408.751	4.589.421
GASTU ARRUNTAK	13.587.302	8.570.863	2.344.393	6.929.108	4.293.413
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	433.170	-188.305	-154.176	479.643	296.008
KAPITAL SARRERAK	562.413	196.859	91.121	253.407	218.044
KAPITAL GASTUAK	3.024.748	1.538.013	242.814	879.074	561.865
AURREKONTU-SALDO EZ- FINANTZIARIOA	-2.029.165	-1.529.459	-305.869	-146.024	-47.813
ZOR BIZIA (Amortizatzeke 08-12-31)	6.801.320	4.382.100	461.304	1.308.539	649.377

Iturria: EUSTAT. Sektorre publikoaren aurrekontuen estatistikak

2010ean Euskal administrazioa osatzen duten 1.145 erakundee 116.001 pertsona enplegatu zituzten batez beste, 70.211 emakume eta 45.790 gizon. %68,2 langile finkoak ziren.

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Jose Javier Aramburu

Tel.: +34-945-01 75 80 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Sektorre Publikoaren Aurrekontuen Estatistikei buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Sektorre Publikoaren Aurrekontuen Estatistikei buruzko datu-bankua